

Egiagarai: «autonomien aurrekontuak Estatukoaren gaineratik igoko dira»

Berezko hizkuntza izateak ez du abantailarik suposatu behar ministroaren ustez

Juan Ramon Egiagarai Espainiako Administrazio Publikoen ministroak hurrengo urtean autonomiek diru gehiago jasoko dutela ziurtatu zuen, «nahiz eta finantzaketari buruz akordiora iritsi ez». PSOEk autonomiei buruz mantentzen duen jarrera ofiziala berretsi zuen Egiagarai eta estatutuen aldaketa beharra ukatu.

MADRIL

«Autonomien aurrekontuak Estatuarenak baino gehiago haziko dira». Hala esan zuen atzo Juan Manuel Egiagarai ministroak irratia baitan. Diru gehiago izango dutenez, beharrezkoa iruditzen saio ministroari konpetentziak areagotzea. PPK autonomien estatutuen aldaketa eskatzen duen bitartean, Egiagarai eskuduntzak Madrileko Gobernuak emandako transferentzi legeen bidez izatea proposatzen du.



Egiagarai autonomien estatua «hastapenetan dagoela» onartu zuen. D. AGUILAR

Egiagarai esanetan, «Autonomien estatua bere hastapenetan dabil eta ezinbestekoa da denen arteko berdintasuna lortzea». Helburu horretarako alderdi guztien arteko adostasuna bultzatzen saiatu dela dio

Administrazio Publikoen ministroak, «Gobernuak eztabaidaren ordezkariak lortzea du helburu».

Finantziaketari dagokionez, autonomiek diru gehiago izango dutela baieztatu zuen, «akordio lortu zein ez

✓ «Berezko hizkuntza izateak ez du esan nahi juridikoki konpetentzia gehiago lortzeko eskubidea dagoenik eta finantzaketak desberdina izan behar duenik».

lortu» esan zuen ministroak. Elkarte autonomoen artean dauden tirabira eta enbidiak gaitzetsi zituen Egiagarai, «denen artean ondo konpontzeko desberdintasunak gutxitzearen garrantzia» aipatu zuen.

Euskal Herria, Katalunia eta Galizia beste elkarte ez historikoekin berdintzen saiatu zen Juan Manuel Egiagarai. «Berezko hizkuntza izateak ez du esan nahi juridikoki eskuduntza gehiago lortzeko eskubidea dagoenik, eta hortaz finantziaketa sistema ez da zertan desberdina izan behar».

Espainiara sartu nahi zuten ehun magrebiar atxilotu zituzten

ALMERIA

Goardia Zibilak eta El Ejido (Almeria) Udaltzaingoak ehun etorkin magrebiar atxilotu zituzten atzo goizaldeko lehen orduetan, Espainiara ilegalki sartu nahi zuten. Etorkin gehienak marokkiarrek dira baina aljeriar eta tunisiar batzuk ere daude. Almeria eta Cadizeko kostaldeak erabili nahi zituzten Espainiara sartzeko. Lehen atxilotetak Goardia Zibilak egin zituen San Roqueko udalerriaren barne dagoen hondartzaren gertu. Geroago, kostaldea zaintzen duen patruila batek txalupa batean zihorazten 14 marokkiar atxilotu zituen, Algeciras paretik Espainiara sartu nahi zutenean. El Ejido Udaltzaingoak eta Goardia Zibilak, bakoitzak bere kabuz, larogei marokkiar atzeman zituen atzo goizaldean. Atxilotaketa hauekin, jadanik ehun dira Espainian legezkotako paperrik gabe sartzen saiatu diren etorkin iparrafrikarrak.

Mancha Real eta Aitonako gurasoek eskolara bidali zituzten seme-alabak

DONOSTIA

Mancha Real eta Aitonako eskola publikoetan normaltasuna da nagusi, astebete luze bakarrik haur ijitoak joan ondoren klasera. Bi herrietako gurasoek uko egiten zioten bere seme-alabak ijitoekin batera bidaltzeari, baino Andaluziako Herri Defendatzailearekin batzuk eta Generalitateko ordezkariarekin beste batzuk bildu ondoren, arazoa momentuz konpondu dela dirudi.

Mancha Realen (Jaen) bizi izan

dira azken egunotan ijitoen aurkako protestarik gogorrenak. Maiatzean izandako ijito eta herritarren arteko borrokak sortu zuen bertako arazoa. Borroka horretan, Romero ijitoen familiako batek gazte bat hil zuten. Ordudanik ijitoen aurkako manifestaldiak izan dira eta beraien etxeak erre egin dituzte Jaeneko herri horretan. Gatazkaren azken urratsa, momentuz, Romero familiako haur ijitoak eskolara joan nahi izatean etorri da.

Beste gurasoak seme-alabak ez

eskolaratzea erabaki zuten eta astelehenetik egunero bildu dira ijitoen sarrera oztopatzeko.

Lau egunetan zehar errepikatu da protestaldia, baina azkenean Manuel Conde Pumpido Andaluziako Herri Defendatzailearekin bildu ondoren, gurasoek seme-alabak normaltasunez bidaltzea erabaki zuten.

ARAZOEN ORAINDIK DIRAUTE

Baina arazoak ez dira erabat konpondu. Haurrak klasera eramatea erabakitzen zen egun berean, Melchor, Romero ijitoen senideko gaztea atxilotu zuen Goardia Zibilak, ustez Maria Manuela Casas Serrano bortxatzen saiatzeagatik.

Alfonso Martinez de la Hoz Mancha Realeko alkateak ukatu egin du bere herrian arrazakeriarik dagoenik eta guztia ijito familia jakin batzuetara mugatzen dela adierazi du. «Arazorik larrienak egun Palma de Mallorca eta Tarragonan dauden Romerorak herri itzultzen direnean izango dira».

Aitonan (Lleida) egoera lasaia da eta haur guztiak eskolara normaltasunez joan dira. Ehunen bat gurasok batzarra egin zuten herenegun gauean eta haurrak klasera bidaltzearekin batera, haur ijitoen erdia herriko eskola pribatura eramatea proposatu zuten. Generalitateak irtenbide hau onartzen zuen baina ez ordea ijitoek. Azkenean ijito eta ijitoak ez direnak elkarrekin joango dira eskolara, «azken finean herriko bi eskolen arteko liskarrak izan dira» esan dute gurasoen elkarteek.



Ijitoen aurkako protestaldiak ez dira momentuz errepikatuko.

EFE

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

DONOSTIAKO O.H.O.-ERA KO IRAKASLEGOAREN EKOLA

Euskarazko Ikastaro trinkoa. Deialdia

Oharra: aurten Magisteritza Euskaraz zein gastelaniaz hasiko diren ikasle guztientzat

Ikastaro trinkoaren datak:

Irailaren 23tik urriaren 18 barne ikastaro trinkoa emango da eskola honetan, goizeko 9etatik eguerdiko 2etara.

Mailaketa frogak:

Irailaren 23an goizeko 9etan

Beste oharra:

Ikastaroa dohainik izango da eta amaieran asistentzia eta gaitzirik gabeko mailaren agiria emango da.

AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA

LITERATUR LEHIAKETA EGILE BERRIENTZAT: OLERKI, NARRAZIO LABUR, KOMIKI ETA BERTSO-PAPERAK

Honen bidez oroit-arazten zaie interesadun guztiei Urriaren 26 egunean (barne) bukatzen dela aipatutako lehiaketa honetan lanak aurkezteko epea.